

Sustapenak Negocios Bienvenida kontua

Bi sustapen horiek elkarren baztertzailak dira, hau da, horietako bakarra aukeratu ahal izango da.

1. ANDROID STA ETA ST BONUA SUSTAPENAREN BALDINTZAK

ST Bonua* sustapena lehen 12 hilabeteak kosturik gabe bezero berriak diren pertsona fisiko zein juridikoentzat, urtean 5 milioi euro azpitiko fakturazioa izanik Android ST bat (edo usadiozko ST bat edo ST birtual bat) 2024/01/31 baino lehen kontratatzen badute. Sustapenak modalitate hauetarako balio du: 6 bonua (SmartPay STarekin bakarrik), 10 bonua (ST fisiko edo birtualerako), 15 bonua (ST fisikorako bakarrik), 20 bonua (ST fisikorako bakarrik) eta 30 bonua (ST fisikorako bakarrik).

* (ST Bonua tarifa lau bat da eta 12 hilabetez hileko kuota finko bat ordaintzean datza, urtero berriku daitekeelarik. Barne hartzen ditu STak Visa eta Mastercard txarteekin, B2B txartelak izan ezik, prozesatutako eragiketa guztien deskontua eta terminal baten mantentze-komisioa). Bigarren terminalerako eta hurrengoetarako, komisioa hilean 5 eurokoa izango da aktibo badago, eta 25 eurokoa ez badago aktibo, hau da, 2 hilabete igarotzen badira eragiketarik egin gabe. B2B txarteekin egindako eragiketei eta Visa eta Mastercard ez diren beste edozein txarteekin edo ordainketa-metodoren egindako eragiketei, dagokien deskontuaren edo kostu finkoaren ehunekoa aplikatzen zaie.

2. EURIBORRA + %0KO FINANTZAKETA SUSTAPENAREN BALDINTZAK

Finantzaketa bankuak aurretik onartzearen mende dago. Baliteke BBVAk zuri ez ematea mailegua edo kreditu-muga. Inportazioen/Esportazioen Aurrerakina finantzaketa-muga kasuan, gerta daiteke behin zure muga baimendu ostean BBVAk zuri ukatzea xedapen eskaeraren bat.

Sustapenak 2024/01/31ra arte balio du, urteko fakturazioa 5 milioi euro baino baxuagoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak diren bezero berrientzat. Sustapena produktu hauei aplikatu daie: Kreditu-kontua, Merkataritza-deskontua, SEPA Zordunketa-aurrerakinak, Inportazioak Finantzatzeko Mugak, Esportazioen Aurrerakina eta Enpresa-mailegua (12 hilabeterako, gehienez). Euriborra + %0ko finantzaketa lehen urtean, 30.000 €-ko gehieneko zenbatekorako, sustapenean sartzen den produktu bakar bati esleitu daie, ezingo delarik hainbat artean banatu. Produktu bakoitzaren finantzaketa-komisio nagusiak (irekiera, azterketa, eskuragarritasuna eta aurretiatzeko ezeztapena) sustapen honetatik kanpo geratzen dira, eta banan-banan negoziatuko dira proposamen bakoitzean.

Adibidez, 2023/01/19ko hiruhileko Euriborrari erreferentzia egiten dion Enpresa-mailegu baterako: %2,39ko ITNa eta **%4,34ko UTB aldakorra** izanez 12 hilabeterako 30.000€-ko zenbateko batentzat, 2.532,48€ ordainduko zenuke hilean. (guztizko zenbatekoa: 30.689,80€; irekiera-komisioa: %1).

2023/01/25eko 90 eguneko Euriborra erreferentziatzen duen Kreditu-kontu baterako: %2,458ko ITNa eta **%3,508ko UTB aldakorra** izanez 30.000€-ko muga erabilgarri batentzat, hiruhileroko likidazioekin eta kredituaren %50 batez besteko erabilpena eginez. Irekiera-komisioa: %1; erabilgarritasun-komisioa: %0,10.

Sustapenetik kanpo diren produktuak: Click&Pay, Zergen mailegua, Confirming eta Factoring.

Sustapena amaitu aurretik, kreditu-muga duten eragiketetan dagokion onarpen-azterketa egingo da horien berritzeari begira, eta berrikusi egingo dira lehen urtea amaitzen denetik aurrera horiei aplikatu beharreko baldintza ekonomikoak.